

## Okendo jendez gainezka Santa Anako finalean

34 eta 35eko emaitzarekin Imanol Bardaji eta Iñigo Arluziaga izan dira aurtengo txapelkunak

Larunbateko arratsaldea 17:30ean hasi zen Santa Anako txapelketako hirugarren eta laugarren postuetarako partidarekin. Eneko Iradik eta Ibon Azkonbietak irabazi zuten 35 eta 27ko emaitzarekin, beraz hauek izan ziren hirugarren eta Alain Etxebeste eta Carlos Garcia laugarren.

Finala 18:30ak pasatko zirenean hasi zen, Xabi Etxezarreta eta Mikel Bardajik osatzen zuten bikotea Iñigo Arluziaga eta Imanol Bardaji bikotearen aurka, lehenengoak gorritz eta bigarrenak urdinez. Partida hasieran abantaila handia hartu zuen bikote urdinak baina bukaera aldera gorriek azkar berreskuratu zituzten galdukako tantoak. 32, 33 eta 34 tantoetan egon ziren berdinduta baina azkenean Imanol eta Iñigo izan ziren 35 tantoetara iritsi zirenak. Lehia handiko partida izan zen bukaera arte eta ikusleak erne mantentzea lortu zuten.

Lehenengo partida hasi zenetik bete zen Okendoko frontoia jendez. Santa Anako pala txapelketa urtero arrakastatsua bada ere aurtengoa berezia izan da oso, bertan jokatu den azkena izan baita. Plaza eraberrituko dela eta frontoia behera botako da eta ez da berririk egingo.

Hori dela eta aurtengo partidetan jokalariek kamiseta bereziak jantzi dituzte horrela frontoiari omenaldi txiki bat egiteko.

Bukatutakoan sari banaketa egin zuten, oroigarriak banatu zizkieten jokalariek guztiei eta omenaldi txiki bat egin zioten Jose Felix Solanori palan ibilitako urte eta egindako lanagatik.


Goxokiak bota zituzten airera txapelketa datorren urtera arte agurtzeko. Pena bada ere datorren urtean beste toki batean jokatu beharko da Santa Anako Pala Txapelketa. •



Ezkerretik hasita, Iñigo Arluziaga, Imanol Bardaji, Xabi Etxezarreta eta Mikel Bardaji.



Jose Felix Solanok omenaldi txiki bat jaso zuen palan egindako lan guztirengatik.



Maidar Amenabar, ALCER elkarteko kidearekin organo emaileei buruz aritu gara solasean /3



Santa Ana eguneko ospakizunak bildu ditugu argazkietan /04-05

Hau da udarako azkeneko TXINTXARRI. Hurrengoa irailaren 8an argitaratuko da.



ELEKTRIZITATEA  
ARREGUI

Material elektrikoa  
Argiak  
Etxetresna elektrikoak  
TB/Hi-Fi  
Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA



## Zorion-agurrak



**Julen**

Bi muxu handi aitona-amonen eta izeba-osaren partetik.



**Aitana**

Zorionak sorgintxo eta Familiaren partetik marrubizko bi musu-txo.



**Larraitx eta Amaia**

Zorionak bikote, asteazkenean ingo deu kantu zuekin batera. Ondo pasau!



**Malen eta Enara**

Zorionak sorginak txokolatezko 2 eta 3 muxu, gurasoen partetik.



**Jon**

Zorionak zure Igo urtebetetzean familiaguztiaren partetik.



**Aitor**

Astebete berandu bada ere, zorionak motel!



**Iker eta Nekane**

Aurreatu egin gea, baina... Zorionak!!! Bikote izatetik hirukote izatera pasako zaretelako laster.



**Gorka**

Madalenen ez baino pastel goxoko ekarri zenituen! Zorionak!

## Azoka txikia

### Eskaintza inmobiliarioak

• Jakan alokairuan bi logela duen apartamentua, uztaile eta abuztu. Urbanizazioak igerilekua du. Tel.: 639 659583.

• Urbarten garaje marra bat alokatzen da. Tel.: 943 363524 (Juli)

• Ria de Vigon (Cangas-Moña), unifamiliarra den etxe bat alokatzen dut, terrazeta eta gune berdearekin. Merkea, abuztua eta iraila. Tel.: 690679810 (Maria).

• Bezero fijoak dituen eta martxan dagoen locutorio bat traspasatzen da Lasarte-Orian. Tel.: 666 773813.

### Salerosketak

• Converse All Star Chuck Taylor (arrosak) 36ko zenbakia saltzen ditut. Estreinatuta gabe bere kaxan 35 eurotan (Forum-en-59 euro-tan). Tel.: 647 995 050, Mikel.

• Logela bateko altzariak saltzen dira. Armairu handi bat, ohea

(kanapea) eta bi gau-mahai. Tel.: 943 362213

Panderoa salgai. Egoera onean eta gutxi erabilia. Salneurria, 60 euro Tel.: 943579565

### Lan-eskaintzak

• Ile-apaindegi baterako neska bat behar da jomada erdirako. Tel.: 647 821 361.

• Lasarte-Oriako Biyak Bat zahar etxeko gizonzkoen ile-apaindegian pertsona bat behar dute. Pelukerian tituluduna eta herritarra Hautagaiak bulegoan aurkeztuko beharko dira, asteleheneetik ostiralera 10:30etik 12:30era.

• Emakume euskaldun bat behar dugu egun erdirako adineko pertsonak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 610 953 258.

### Lan-eskariak

• Emakume gaztea eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko, 12:00etatik 16:00 etara asteleheneetik ostiralera. Tel.: 661 182178.

### Jaiotzak

Gaizka Martinez Campo, uztailearen 18an.  
Nalara Zapirain Gonzalez, uztailearen 16an.  
Goreti Aguirre Artea, uztailearen 11n.

### Heriotzak

Antonio Ruiz Garcia, uztailearen 23an 83 urte zituela.  
Mª Teresa Borda Zubeldia, uztailearen 16an 95 urte zituela.

## Guardiak

### Astelehena, 28

Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567

### Astearte, 29

Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567

### Asteazkena, 30

Acha-Orbea, Hipodr. et.6  
Tel.: 943 363549

### Osteguna, 31

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

### Ostirala, 1

Acha-Orbea, Hipodr. et. 6  
Tel.: 943 363549

### Larunbata, 2

Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567

### Igandea, 3

Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567

### Astelehena, 4

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

### Astearte, 5

Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567

### Asteazkena, 6

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

### Osteguna, 7

Acha-Orbea Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

### Ostirala, 8

Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567

### Larunbata, 9

Acha-Orbea, Hipodr. et. 6,  
Tel.: 943 363549

### Igandea, 10

Acha-Orbea, Hipodr. et.6  
Tel.: 943 363549

### Astelehena, 11

Acha-Orbea, Hipodr. et. 6  
Tel.: 943 363549

### Astearte, 12

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

### Asteazkena, 13

Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567

### Osteguna, 14

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

### Ostirala, 15

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

### Larunbata, 16

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

### Igandea, 17

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

### Astelehena, 18

Rodriguez, Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

### Astearte, 19

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

### Asteazkena, 20

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

### Osteguna, 21

Rodriguez, Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

### Ostirala, 22

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

### Larunbata, 23

Rodriguez, Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

### Igandea, 24

Rodriguez, Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

### Astelehena, 25

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

### Astearte, 26

Rodriguez, Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

### Asteazkena, 27

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

### Osteguna, 28

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

### Ostirala, 29

Rodriguez, Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

### Larunbata, 30

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

### Igandea, 31

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

## Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Maidar Amenabar, ALCER giltzurrun gaixoen elkarteko langilea

# ‘Organo emailea zaharragoa da egun’

■ Gazte asko dira itxaron zerrendatan organo gazte gutxi delako ■ Dialisian dauden gaixoen kopurua bikoiztu egingo da hamar urtetan ■ Munduan transplante gehien EAEn egiten da

**Maidar Amenabar gizarte laguntzailea giltzurruneko gaixoeekin ari da lanean. Berak esan digu organo emaile txartela izatea baino garrantzitsuago dela ondokoei, senideei eta lagunei zure borondatea jakinaraztea. Oso kasu gutxitan izaten da posible transplantea eta senideen onspena lortzeko komeni da hauek zure nahien berri izatea.**

JON ALTUNA

Maidar Amenabar lasarteoriarra da jaiotzez, gero haurtzaroran familiarekin Zubietara joan zen eta azken urteotan Donostian bizi da. Giltzurruneko arazo kronikoak dituzten gaixoeekin egiten du lan Donostia Ospitalean. Alcer Gipuzkoa elkarteak 30 urteurrena bete du aurten eta bertan atentzio psikosozial zerbitzua eskaintzen diete Gipuzkoako 800 familiari. Osasun arazo serio bat da eta familian eragin zuzena daukana. “Askotan familiari gehiago laguntzen diogu, pazienteari berari baino”.

Bestalde, Alcerrek Donostian Amara auzoan duen lokal sozialetik organo ematearen aldeko sentsibilizazio kanpainak bultzatu dituzte azken 30 urtetan. Aurten lelo berriarekin, *Bizia eman bizia deman*.

Maidarrek azaldu digu, beharra badagoela, munduko transplante kopuru handiena hemen egiten bada ere: “estatistikei begiratuta Estatutik Euskal Autonomi Erkidegoan egiten dira gehien, eta Europarekin zein munduarekin konparatuz, tasa altuena duena estatu espainiarra da.

Baina azken bostpasei urtetan nabaria da dialisia eta itxaron zerrendan dauden gazteek denbora gehixago itxaron behar izaten dutela: trafiko istripuak gutxitu egin dira zorionez, -notizia ona da guztiontzat- baina horren eraginez eta beste arrazoi askorengatik emailearen profila aldatu da, gero eta zaharragoa da. Saiatzen gara persona zahar baten organoak hartzaile zahar bati jartzen. Ez da logikoa 25 urteko pertsonari 70 urteko pertsonaren giltzurruna jartzea.

Inportantea iruditzen zitzaizgun aurten kanpaina indartsu bat egitea, jendeak jakin dezan beharra hor dagoela, hau da, nahiz eta munduan hoberean izan, beharrak hor jarraitzen duela eta listoa altu mantentzea kosta egiten dela. Horrengatik atera gara kalera eta aurkeztu digu kanpaina berri hau”.

**Helburuak zeintzuk izan dira?**

Helburua biztanlegoa sentsibilizatzeko da. Guk beti esaten dugu emaile erreal izateko oso aukera gutxi ditugula: ospitalean hil behar da eta horietatik ehuneko 1 da soilik emaile potentziala. Gainera, une hori ez da aproposena familia sentsibilizatzeko. Familia horrek bezperan pertsona sano bat zeukan bere artean eta hil egin da. Trantze gogor hori errespetatu behar da eta familia horrek, aurretik ez badauka sentsibilizazio puntu bat eta ez badu ezer entzun, ez da momentua. Horregatik uste dugu aurretik egin behar den lan bat dela eta beraz kanpainaren helburuak sentsibilizazioa, mentalizazioa eta normalizazioa dira.

**Beraz familiak beti eman behar du bere onspena, ez da nahikoa emaile txartela izatea...**

Bai, familiak bere onspena eman behar du, baina oso garrantzitsua da alde aurretik familiak jakitea hildako bere senitarteko horrek bazuela emaile txartela. Eta are inportanteagoa lagunei, familiari, bikoteari, ondokoei, lankideei,... komentatzea, "nik txartel hau bete dut eta hau da nire borondatea", gero hori errespetatu dezaten.

**Jende asko al dago itxaron zerrendan?**

Dialisia gaur egun 225-250 pertsona inguru daude Gipuzkoan, eta gutxi gorabehera ehuneko 30a dago itxaron zerrendan. Jende asko dago giltzurrun baten zain, eta beste paziente batzuk beste organo batzuen zain daude, bihotzaren edo gibelaren itxaron zerrendan.

**Transplante gehien giltzurrunarenak izango dira, ezta?**

Emaile dena emaile integrala izaten da normalean, eta inoiz ez zaio familia bati kornea eskatzen edo bihotza eskatzen. Eskatzen zaionean, oniritzia eskatzen da bere senitarteko hori organo emaile



Maidar Amenabar, giltzurruneko gaixo kronikoei eta hauen senideei laguntza ematen dihardu lanean.

“ *Aukera gehiago ditugu bizitzan organo baten beharra izateko organo emaile izateko baino*

izateko. Normalean, ehuneko portzentaia handi batean dena hartzen da. Dena da erabilgarria, organo solidoak, bihotza, birrikak, gibela, giltzurrunak... korneak eta ehunak ere erabiltzen dira eta tendoiak berreraikitzen hasi dira: azala, hezurak... dena. Garai batean, birziklapenaren kontzeptua erabili genuen kanpaina batean. Emaile asko lortu genituen oso modan zegoen garai hartan: zuzetat balio ez duen zerbaitek beste pertsona askori bizitza emango dio.

**Kostatzen al da familiakoa komentatzen?**

Lan hori ez dugu guk egiten. Horretarako osasun sailak transplante koordinatzaileak jarrita dauka ospitale guztietan. Horiek arduratzen dira familiekin hitz egiteaz. Ez da kostatzen. Solidaritate maila altua dago hemen eta jendea jada nahiko informatua dator.

Transplante koordinatzaileek esaten dute eta egia da, lehenetik txartela daukanak aurrerapauso handia eginda daukela. Familia horiei ia ezer esan beharrik ez da izaten.

Bestalde ezagutu izan ditugu, semea edo alaba istripuz galdu eta bere organoak hartu dizkieten senideak. Horiek izugarriko lasaitasuna sentitzen dute, nahiz eta trantze gogorra pasa eta bere senitartekoa joan, esaterako bere seme horrek beste zazpi bizitza eman dituela jakitearekin. Horrek asko lasaitzen eta pozten du familia.

**Kanpaina nola joan da? Zer egin duzue?**

Kanpaina prentsa aurrean aurkeztu eta urtero bezala, ekaineko lehen asteburuan mahai informatiboak jarri ditugu Gipuzkoako ia herri guztietan. Aurten lelo berria erabili dugu triptiko eta karteletan, gogo gehiagorekin aritu gara eta

emaitez ere onak izan dira. Gutxi gorabehera mila emaile berri egin ditugu eta hori pozgarria da. Nabaritu dugu gazteen artean batzuk atera direla itxaron zerrendetatik. Sanjoanen ondoren, eduki ditugu gazteen bizpahiru transplante. Eta ez dut uste kasualitatea denik. Kanpainak mugitu du apur bat biztanlegoa.

**Zenbat emaile da Gipuzkoan? Berritu behar al da txartela?**

Gipuzkoan 60.000 emaile daukagu erregistratuak banan bana gure datu basean, hauek 1200 Lasarte-Oriakoak dira. Ez da txartela berri beharrik. Behin eginda, datu basean sartzen da izena eta hori da garrantzitsuena.

Dena den, aukera gehiago du gutako edozeinek organo bat behar izateko, organo emaile izateko baino. Estatistiken arabera, dialisia behar duten pertsonen kopurua hamar urtetan bikoiztu egingo da. Hasteko gero eta gehiago bizi garelako, eta beste gaixotasun kronikoek, askotan giltzurrun gutxitasun kronikoan eragiten dutelako. Adibidez diabetikoak. Diabetea dutenen ehuneko 30a iristen zaigu guri. Seropositiboak, gibeleara arazo kronikoak dituztenak,... asko dira. Gorputzeko organo bat gaizki dabilenean besteek lan gehiago egin behar dute eta kaltetu egiten dira. •

“ *Hedatua da, istripuan hiltzen dena emaile potentziala dela, baina ez da egia, ospitalean hil behar du*





## Sutara kondenatu arren, deabruak ez zituen akusatuak erre

TXINTXARRI

Urtero bezala, Brigiten Komentuko ohiko mezarekin hasi ziren Santa Ana eguneko ospakizunak. Ondoren Ttakunek antolatutako luntxa dastatu ondoren, Santa Ana Karkabaren aurrean agurra dantzatu zuten Erketz Dantza Taldeko dantzariak. Arratsaldean berriaz, Ttakuneko aisia saileko begira-leek haurrentzako jolasak antolatu zituzten Okendo plazan.

Baina eguneko ekitaldirik garrantzitsuenak eta sonatuena Parodia izan zen. Bertan azken urtean herrian gertatutako kontu garrantzitsuenak errepasatu zituzten. Aurten digoigintza lanetan lan-taldetxo bat aritu da: Pablo Barrio, Mailu Aruti, Ixabel Bereziartua, Esti Garmendia, Kontxu Iartza, Aitor Ezaguirre.

Parodian parte hartu zuten guztiak (berrogei aktore inguru, dantzariak, musikoak, bonberoak...), lauoregi lagun ingururik, afari ederraz gozatzeko aukera izan zuten Xirimiri elkarteak.

Bapo afaldu ondoren, desfileari eman zioten hasiera. Herriko kaleetan zehar, parodia jarraian ospatuko zela iragarzeko aktore guztiak atera ziren kalera.

Antzerkia egin baino lehen, omenaldia egiten da urtero, eta aurten gainera bi egin ziren. Bi elkarte izan baitira aurten 25 urte bete dituztenak. Bata Ostadar Kirol Fundazioa. Itziar Carrascok jaso zuen oroirgarria eta Amaia Agirrek bertso eder bat eskaini zion. Ondoren, Santa Ana Artisau Azoka omendu zen, eta oroirgarria

jasotzera Antton Salsamendi igo zen oholtzara. Honi ere bertso polit bat kantatu zion Amaiak.

Omenaldiez gain, aurten antolatzaileek aipamen berezi bat egin nahi izan zioten maiatzean hil zen Lurdes Ubeguni, hainbatetan parodian parte hartu izandakoa.

Eta antzerkia hasi zen. Aurten luze xamar jo zuen. Ordu eta erdi inguru iraun zuen parodiak sutara kondenatu zituen Ximona Etxeberriberria Saltzekogutxi eta Patixiku Axkarregi Koitolarrinoski. Hala ere deabrua errausketaren kontra dagoenez, ez zituen erre.

Antolakuntzak eskerrak eman nahi dizkie parodian modu batean edo bestean lagundu edo parte hartu duten guztiak.



Atsobakar egoitzakoek ere, egun berezia izan zuten larunbatean. Bazkari eder bat egin ondoren Amalur taldekoekin arratsalde ederra igaro zuten.



# SARETXO

## JATETXEA

Hartu tokia, aldeaz aurretik!

**AUKERAKO MENU**  
**BEREZIAK**

Marrakaenea baserria • Santa Barbara auzoa 92  
Tel.: 943 554675 / 943 556481 • HERNANI



Maiatzatik Irailera gauero\* zabalik

Asteko menu berezia ikusteko:

www.goiegi.com

\*gaurko eta astelehenak esk



Irubide ballara 1 - 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)

T. 943 36 14 04 / 943 37 11 78

# Folklore jaialdian musika eta kolore biziak izan ziren nagusi

■ Eslovakia, Mexiko eta herriko Erketz taldeek ikuskizun bizia eta ederra eskaini zuten

TXINTXARRI

Ostegunean ospatu zen Manuel Lekuona kulturetxean Nazioarteko XXVIII. Folklore Jaialdia. Aurretik ordea, arratsalde partean, Mexikoko Kutzi, Yurecuaro-ko Folk-Baleta eta Eslovakiako Maj Folk Elkarte eta Lasarte-Oriako Erketz Dantza Taldeko kideek desfilea egin zuten eta kolore biziz jantzi zituzten herriko kaleak ordu batzuek. Aipatu herrialdetako jantzi, dantza eta kantu tradizionalak azaletik bederen eza-gutzeko aukera polita izan zen Santio bezperakoa.

Ondoren, Manuel Lekuona Kultur Etxean, ordu eta erdiko emanaldia eskaini zuten hiru taldeek. Erketz D.T.k hasi zuen emanaldia agurra dantzatzuz. Saio laburra egin zuten herrikoek, protagonismoa kanpoko taldeei utziaz. Jarraian Eslovakiako Maj Folk talderen txanda izan zen eta amaitzeko Mexikoko dantzariak egin zuten beraien ikuskizuna. Amaieran oroigarri banaketa egin zuten. •



Ezkerreko irudian Eslovakiako Maj Folk elkarte eta eskuinean Mexikoko Kutzi, Yurecuaro-ko Folk-Baleta.

## Ezker abertzaleko zinegotzien salaketa

**Ezker abertzalea kosta ala kosta erakundeetatik kanporatu nahi dutela eta hori lortzeko beste alderdi politikoak ezker abertzalearen kontra hartzen ari diren neurriak salatuz zituzten asteartean 19:30etan Okendoko plazan 50 bat herritarrek babesturik Lasarte-Oriako hiru zinegotzik eman zuten prentsaurrekoan.**

Joxe Goikoetxea, Itziar Yarza eta Txanpi Baztarriak gogoratu zuten herritarrek aukeratu zituztela, baina paretik kendu nahi dituztela, bidea libre behar dutelako "euren txantxullo eta negozioetarako, eredu baztertzaila, ilun, eskuindar eta itxia garatzeko". Hala ere lanean jarraituko dutela jakinarazi zuten zinegotziek, "erasoak eraso lanean jarraituko dugu, herritarrek hauteskundeetan emandako mandatua betetzeko, Euskal Herrian benetako aldaketa politikoa gauzatzeko eta

gure herria ezkerretik eraikitzen jarraitzeko"

Ezker Abertzaleko hiru zinegotziek hasteko zera gogoratu zuten, zilegitasuna eta babesa Lasarte-Oriako herritarrek eman zirela proiektu politiko konkretu horri iazko maiatzaren 27ko Udal hauteskundeetan eta horri esker daudela erakundetan lanean. "Ilegalizazio, eraso eta traba guztien gainetik ia 200.000 euskal herritarren babesa jaso genuen, Lasarte-Orian ia 1.300ena". Udaleko bigarren indar politikoa da PSE-EEren atzetik eta beste hainbat herritan izan da ezker abertzaleko hautagaia guztien artean bozkatuena.

### EAE-ANVren salaketa

Prentsaurrekoan ezker abertzalearen aurka azkenaldian izan diren erasoak aipatu zituzten EAE-ANV alderdiko hiru zinegotziek. "Lehena hauteskundeetan EAE-ANV-



Txanpi Baztarri, Itziar Yarza eta Joxe Goikoetxea, EAE-ANV zinegotziak, Okendon eskaintako prentsaurrekoan

ren zerrenden erdiak legez kanpo jarri eta mila herritar ordezkariarik gabe utziz; gero, Baltasar Garzon entzutegi Nazionalako epaileak alderdi honen eta EHAKren jarduerak eteteko agindua eta ondoren alderdi politikoek Udaletan ezker abertzaleko ordezkarien aurka aurkeztutako mozio etikoak".

Ezker abertzalearen ustez azken bide horrek herritarren haserre eragin eta beste alderdietako zinegotzien zein kideen aurkako jarrera piztu duelako porrot egin duenean bide berri bati ekin diote: "Garzonen aginduaren epaia presaka abuztuan aterako omen da, baina aurretik agintu hori betearaziz udal talde

ezkertiari eta abertzaleen aurkako neurriak hartzen hasi dira".

Ezker abertzaleko zinegotziek eraso horien barruan kokatu zituzten Entzutegi Nazionalera deklaratzera joateko zitazioak eta espetxeratzeak ere, esaterako Ina Galparsoro Arrasateko alkatearena. •



Egunero

**Erakusketa**

EVA LIZARRAGA margolariaren lanak egongo dira ikusgai hila-bete osoan Jalgin, egun osoan.



Astelehena, 28

**Zubietako Jaia**

UMEEN EGUNA  
10:00etan jolasen hasiera  
14:00etan Bazkaria  
16:00etan jolasen jarraipena  
18:00etan Gorritiren showa

Osteguna, 31

**Zubietako Jaia**

SAN INAZIO EGUNA  
06:00etan txokolatada  
07:00etan Sokamuturra  
10:30ean meza  
11:00etan Errebote partidua  
14:00etan Zikiro jana  
18:00etan Herri kirolak  
23:00etan Ansoregi eta Larrañaga trikitilariak.



*Gau pasa izango da  
asteazkenean Zubietan*


San Inazio bezperan musika taldeen kontzertuarekin hasiko da gaua. Mendeku Itxua eta Etsaiak taldeak izango dira lehendabizi, eta jarraian Trikizio taldearen emanaldia izango da goizalderarte.

ASTEAZKENA, UZTAILAREN 30EAN  
ZUBIETA KO FRONTOIAN  
00:00ETATIK AURRERA

**Liburutegiko ordutegia**

Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara  
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181



**Eskutitzak**

**65 ordutako direktiba Mobilizazioa presazkoa da**

Laneko ministroan europear biltzarrak direktiba baten bitartez Europar Batasunean gehiezin egin daitezkeen lan orduak 48tik 60ra gehitzea erabaki berri du. Guardiari egin behar diren lanpostuetan-medikuen kasuan adibidez-asteko lanaldia 65 orduetara igo daiteke.

Zuzendaritza ez da horretan geratzen, baizik eta banakakoaren ordutegia langilea eta enpresariaren artean hitzarmena egiteko aukera jasotzen du. Neokonserbadoreek eta ultraliberalismoak harrotasunez erabiltzen duen hizkuntza doilorkeriarekin aukeratzeko askatasuna deitzen diote. Langile batek lan ordu gehiago egin nahi baldin baditu, zergatik ukatuko diogu? esatera dator. Malgua izatean datza.

Malgutasuna, neoliberalak esplotazioa izendatzeko erabiltzen duten eufemismoa.

Espainiako gobernua neuri hori kritikatu eta bere bozerramailek benetako atzerakada sozialtzat jo dute. Hori hala izan arren, errealitatea desberdina da, Espainiako ordezkari-tza abstenitu egin zen eta.

Sindikatu guztiak eta Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak euren gaitzespena adierazi dute. Direktiba Europako Legebiltzarrean onartu behar denez, direktiba onartu ez dezaten presioa egingo dute. Sindikatuetako ordezkari batzuek Europar udazkena

beroa izango dela iragarri dute eta 2009an Europako Legebiltzarrean hauteskundeak dau-dela gogorarazi dute.

Jendearen bizi eta lan baldintzei izugarriko jipoia ematen dion direktiba ez da larria soilik lanaldiak handitzen dire-lako. Mende eta erdi atzera eramaten gaituen eraso da, zortzi ordutako lanaldien alde egiten ziren lehen borroketara. Langileek euren lan baldintzak pakatzeko duten erremintari, negoziazio kolektiboari, izugarriko eraso da.

Europako langilegoa larrialdi egoeran dago. Beharrezkoa da erabateko eta berehalako erantzun bat, mobilizazio terminoetan. Urriak 7rako itxurazko enpleguaren alde ekintza sindikal bat aurrikusita dago, hau prestatzeko modurik honena kalera irteeta da europar lan eskubideei eginiko erasorik handiena. Langileei eginiko eraso geratzeko.

Direktiba honekin Negoziazio Kolektiboaren ahalmena deuseztatzen dute eta sindikatuen papera deuseztatuta nahi dute. Europako sindikalismoa eraso bortitz honi bateratuta erantzun behar dio.

ESK Michelin Lasarteko Sekzio Sindikalak errebinkazio hau dituen indar guztiekin babestuko du, eta gainontzeko sekzio sindikalek berdin jokatzeara espero du, denon artean Europako langileria egiten zaion mehatxu honi aurre egiteko.

**ERREDAKIOAK ITZULIA**  
**Josean Cuesta**  
**CE Michelin Lasarteko kidea**  
**ESKtik**

**Oharrak**

**Buruntz-Azpiko Galeper tiraketa**  
Uztailaren 31n Buruntza mendian dagoen Zapal base-rriko larreetan Galeper Tiraketa (kaiolan) ospatuko dute auzoko San Inazio jaia direla eta. Izen-emateak Buruntz-Azpi elkartearen bertan egin behar dira 29an baino lehen.

**Iraileko Stocken azokan izena emateko epea zabalik**  
Irailearen 21ean Michelinen ospatuko den Stockaren ferian izena emateko epea zabalik dago. Azokan Lasarte-Oriako edozein establezimenduk hartu dezake parte; interesa dutenek horretarako, izena uztailearen 30a baino lehen eman behar dute. Horretarako Gorka Goikotxearekin, Merkataritza Teknikariarekin, harremanetan jarri behar dira. Bi modu daude horretarako: 943 45

63 33 telefonoan edo gorka@aega.es helbide elektronikoan.

**Udal kiroldegiko bazkidetza**  
Udalaren kirol instalazioak uztailetik abendura erabiltzeko asmoa duenak, urte erdiko abonoa egiteko epea irekita dagoela jakinarazi dute kiroldegitik. Informazio gehiago nahi izanez gero Udal Kirol Zerbitzuetako bulegoetara jo daiteke edo 943 37 61 82 telefonora deitu.

**Kiroldegiko udako ordutegia**  
Udako ordutegia martxan dago kirol instalazioetan, bai Kiroldegian, bai Kirol Gunean. Kiroldegia astelehenetik ostiralera 7:00etatik 12:00etara eta 17:00etatik 21:00etara egongo da irekita eta larunbatetan, berriz, 9:00etatik 13:00etara. Igande-

tan itxi egingo dute. Bestetik, kiroldegitik erabiltzaileeri jakinarazten zaie Lasarte-Oriako igerilekua uztailaren 25an eta 31ean, goizez, zabalik egongo dela, goizeko 9:00etatik 13:00etara.

**Kirol Gunea**  
Astelehenetik ostiralera 10etatik 12:30era eta 17etatik 21etara, larunbatetan 9etatik 13etara, igandetan itxita. Udalaren Kirol Instalazioen erabiltzaileei, ondoko hau gogoratzen diegu: Abonua Buruntzaldeako edozein Udalaren Kirol Instalazio, edozein momentutan eralbitzeko bidea ematen duela (gune bakoitzeko arau eta egutegia errespetatuaz.

**Kiroldegia bi astez itxita**  
Lasarte-Oriako Udalaren Kirol Instalazioak abuztuaren 3tik 17ra bitartean (bi egunak barne), itxita egongo dira, ins-

talazioen mantenimendua eta garbiketa egiteko, izan ere, instalazioak martxan dauden bitartean eginkizun horiek ezin dira egin. Bestetik, Michelingo kirol gunea uztailaren 31an itxita egongo da. Kiroldegiko ordezkariak jakinarazi dute, egun horietan Kirol Instalazioko Abonatuak beste Instalakuntza hauek erabiltzeko aukera izango dutela: Urnieta (Tel.: 943 00 83 28) eta Hernani (Tel.: 943 55 21 85).

**Euskara ikasten aritu direnek beka jasotzeko aukera**  
Udaleko euskarako zerbitzuak jakinarazi du 2007-2008 ikasturtean euskara ikasten aritu diren lasarteoriarrek beka jasotzeko aukera dutela. Horretarako, interesatuek subentzio-eskaerak Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dituzte, bulego-orduen barruan eta ondoko jarraibi-


deen arabera.

Batetik, subentzio-eskaera dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo hamabost egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak. Eskaerak betiere agiri guztiekin aurkeztu beharko dira.

Bestetik, Udalak eskura jarriko dizkion eskaerarako eta zinpeko deklaraziorako ereduak behar bezala beteta aurkeztuko ditu, eta eskaerari erantsiko dizkio subentzioak jasotzeko baldintzak akreditatzeko eskatutako agiriak.

Argibide gehiago nahi izanez gero, euskarako zerbitzura jo daiteke edo 943 37 61 84 telefono zenbakira deitu dezakezue.

**Oharrak jartzeko:**  
Tel.: 943 366858  
txintxarri@ttakun.com  
Geltoki kalea 4, behe



RPS 25/06



**Aldaz Hartz Klinikak tratamendu aurreratuenetan aplikatutako punta puntako teknologia eskaintzen dizu**

- ◆ inplanteak eta hartz fijoak egun batean
- ◆ ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe
- ◆ "invisalign" ortodontzi ikusezina
- ◆ pazientearen irribarrea sesio batean aldatzen duten karilla estetikoak
- ◆ interesik gabeko finantziazioa 12 hilabete arte

Deitu gure zerbitzua ezagutzeko

**943 366 377**

Ola Kalea,10

Lasarte-Oria 20160 Gipuzkoa

[www.dentalaldaz.com](http://www.dentalaldaz.com)



IPARJOY<sup>®</sup> A.I.E.



**IZARRA  
BITXITEGIA**



Geltoki kalea 19,  
Tel.: 943 371384  
Juan XXIII.a plaza, z/g,  
Tel.: 943 364945

[www.izarrabitxitegia.com](http://www.izarrabitxitegia.com)